



Andoain Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

**DIRULAGUNTZA LERROA:
AURREIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK - 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS - 2024:
BASE ESPECÍFICA.**

1

1.- Xedea

Lerro hauen xede dirulaguntzak ematea da, Andoianen kultura-jardueren programak kofinantzateko eta bultzatzeko. Programa horiek udalerrian errotutako pertsonak edo irabazi-asmorik gabeko elkarteak edo bestelako-erakundeak antolatu eta egingo dituzte, eta haien helburuak bat etorri beharko dira Udaleko Kultura Batzordearen helburu estrategikoekin, betiere ohiko dirulaguntzen deialdian parte hartu ezin izan badute.

Jarduera horiek gauzatzean genero-berdintasuna, euskararen presentzia, kulturartekotasuna eta ingurumenaren errespetua babestu beharko dira.

2.- Dirulaguntza zein partidaren kargura egingo den eta guztirako gehinezko kopurua

Programa honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru kopurua 4.000€koa da eta finantzatuko da 1.05.00.481.334.00.07.2024 (646 kodea) kulturako dirulaguntzak kontu sailaren kontura.

3.- Onuradunak

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte deialdi honetan zehaztutako alorrean Andoaingo herrian kultura ekintzak burutzen dituzten pertsona fisikoak edo irabazi asmorik gabeko elkarteak, egoitza eta jarduteko esparrua Andoainen dituztenak.

Elkarte onuradurek, dagokion erregistroan izen ematearen betebeharraren baldintza bete beharko dute.

Irabazi asmorik gabeko entitatetzat hartuko dira elkartearen helbururarekin bat datozen jarduerak burutu eta etekinak elkarteak lortu nahi dituen helburuetan inbertitzen dutena.

38/2003 Legearen 14. artikulua zehazten dituen egoeratan sartuta dauden gain, deialdi honetatik kanpo geratuko dira :

a) Bere izaera eta helburuak kultura sailaren ardurapekoak diren eremuekin lotura zuzenik ez dutenak.

b) Bere izaera eta helburuagatik udalaren beste dirulaguntza programa batean sar daitezkeen proiektuak edo ekintzak.

1.- Objeto

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para cofinanciar e impulsar programas de actividades culturales en Andoain, organizados y llevados a cabo por personas físicas o asociaciones u otras entidades sin ánimo de lucro radicadas en el municipio, y cuyos fines vayan en consonancia con los objetivos estratégicos de la Comisión de Cultura del Ayuntamiento, siempre y cuando no haya podido concurrir en la convocatoria de subvenciones ordinarias.

En la ejecución de estas actividades se deberán garantizar la igualdad de género, la presencia del euskera, la interculturalidad y el respeto al medio ambiente.

2.- Partida presupuestaria a la que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las mismas.

El importe económico asignado para las subvenciones objeto del presente programa asciende a 4.000€ y será financiado con cargo a la partida presupuestaria de Cultura, 1.0500.481.334.00.07.2024 (código 646).

3.- Entidades Beneficiarias

Podrán solicitar subvención aquellas personas físicas ó entidades sin ánimo de lucro que desarrollen actividades culturales en el municipio de Andoain en el campo especificado en la presente convocatoria, que tengan su sede y ámbito de actuación en Andoain.

Las entidades beneficiarias deberán reunir la condición de obligatoriedad de inscripción en el correspondiente registro.

Se consideran entidades sin ánimo de lucro aquellas que desarrollen actividades acordes con el objeto de la asociación y cuyos beneficios se inviertan en los fines que persigue la asociación.

Quedarán excluidas de la presente convocatoria, además de las incluidas en las circunstancias a que hace referencia el artículo 14 de la Ley 38/2003:

a) Aquellas entidades cuyos objetos y naturaleza no tengan una relación directa con los ámbitos de competencia del área de cultura.

b) aquellos proyectos o actividades que por su naturaleza y objeto puedan ser incluidos en otro programa de subvención del Ayuntamiento.



Andoain Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

**DIRULAGUNTZA LERROA:
AURREIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK - 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS - 2024:
BASE ESPECÍFICA.**

2

c) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea (jaiotza, arraza, sexu, erlijio iritziagatik diskriminazioaren debekua) betetzen ez duten elkarte edo erakundeek edo pertsonen eskabideak.

c) No se atenderán las solicitudes de asociaciones o entidades o personas que incumplan la legislación vigente en sus actividades públicas (prohibición de discriminación por razón de nacimiento, raza, sexo, religión).

Dirulaguntza deialdi honetan parte hartzen duen orok arrazoitu beharko du ohiko deialdian parte hartzeko aukera eduki ez izana.

Todas las solicitudes que presentan su solicitud a esta convocatoria deberán de motivar la razón por la cual no pudieron optar a la subvención anual ordinaria.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Documentación a presentar con la solicitud.

Dirulaguntzak emateko udal ordenantza arautzaileen ezartzen den bezala, pertsona eta entitate eskatzaileek eskabide-eredu ofiziala eta horrekin batera dagozkion eranskin guztiak aurkeztu beharko dute, honako agiri hauekin batera:

Tal y como se establece en la Ordenanza municipal reguladora para la concesión de subvenciones, las entidades y las personas solicitantes deberán presentar el modelo oficial de solicitud con todos sus anexos junto a la siguiente documentación:

- Erakunde eskatzailearen pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.
- Erakunde eskatzailearen IFZaren fotokopia, hala badagokio.
- Diruz lagundua izan nahi duen proiektuaren, jardueraren edo programaren originala, erakunde eskatzailearen organo eskudunak onartua (Inprimaki eredu)
- Programaren gastuen (kontzeptua eta zenbatekoak) eta sarreraren aurrekontua (jatorria eta zenbatekoak). (Eranskina I)
- Administrazio- edo zigor-prozeduran sartuta ez dagoela, beste dirulaguntza batzuei buruz eta oinarri hauetako baldintzak beteko dituela adierazten duen zinpeko aitortpena (euskara, berdintasuna, publizitatea...) (Eranskina II)
- Eskaera egin duen elkarte edo erakundearen estatutuak. Baldin eta lehendik aurkeztu ez badira edo aldaketaren bat egin baldin bada.

- Fotocopia del DNI de la persona responsable o representante de la entidad solicitante.
- Fotocopia, en su caso del NIF de la entidad solicitante.
- Original del proyecto, actividad o programa que se pretende sea subvencionado, aprobado por el órgano competente de la entidad solicitante. (Modelo de impreso)
- Presupuesto de gastos (conceptos e importes) y de ingresos (procedencia e importe) del programa. (Anexo I)
- Declaración jurada de no hallarse incurso en procedimiento administrativo o penal, referencia a otras subvenciones y cumplimiento de los términos de estas bases (euskara, igualdad, publicidad...) (Anexo II)
- Estatutos de la asociación o entidad solicitante. Si no han sido presentadas con anterioridad o si han sufrido alguna modificación.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoaingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Gipuzkoako Foru Ogasunean dirulaguntza lortzeko baldintzak betetzen dituzuen egiaztatzeko behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean.

De acuerdo con el art. 28 de la Ley 39/2015 y el art. 6.1. del Reglamento (UE) 2016/679, el ayuntamiento de Andoain consultará directamente, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, en la Hacienda Foral de Gipuzkoala información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones para acceder a la ayuda.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorritik, eskatzaileak bere datuak kotsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagozkion ziurtagiriak aurkeztera behartu ahal izango du.

De acuerdo con el artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos, de 27 de abril de 2016, la persona solicitante podrá oponerse a la consulta de sus datos, debiendo alegar los motivos de su oposición, en cuyo caso, el ayuntamiento podría obligarle a presentar los correspondientes certificados.



Andoain Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

**DIRULAGUNTZA LERROA:
AURREIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK - 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS - 2024:
BASE ESPECÍFICA.**

3

4.- Akats zuzentzea

Eskaerak deialdiaren arauan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, interesatuari gehienez 10 eguneko epe luzaezin batean zuzentzeko eskatuko zaio, eta gainera, egiten ez badu, bere eskaerari uko egin diola helduko zaiola jakinaraziko zaio, aurrez azararen 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 71. artikuluan aurreikusten dituen baldintzen arabera erabakia hartuta.

5.- Diru-laguntza emateko prozedura antolatzeke, bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak, eta eta ebazpena jakinarazteko epea.

Eskaerak kulturaren administrazio unitateak izapidetuko ditu, eta Hezkuntza eta Kulturako Zinegotzi ahalduaren bitartez ebazteko da gehienez ere 6 hilabeteko epean, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

6.- Diruz lagunduko diren gastuak

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak honako hauek dira: diruz lagundutako jarduerarekin bat etorri eta oinarri hauetan finkatutako epeen barruan egiten direnak, hala nola: jarduera kulturalak sustatu eta hedatzeko programak edo ekintzak, kultur erakundeek prestatutako jaialdiak, dantza, antzerkia, folkorea, tradizioa, arte plastikoak, baita musika edo liburu argitalpen, ondarearen babesa eta berreskurapenarekin, ikus entzunezko eta abarrekin zerikusia dutenak ere.

7.- Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Aurreikusitako jarduerak programetarako dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta 2024ko azaroaren 8ean amaituko da.

Udalak horretarako prestatutako inprimaki bereziak aurkeztu behar dira behar bezala betetarik.

Bere zerga-betebeharrak egunean dituela ziurtatzeko beharrezkoak diren egiaztapenak Andoaingo udalak bere kabuz egin ditzan baimena eman beharko dio eskatzaileak eskaera-orrian. Baimenik eman eztean, zerga-betebeharrak egunean dituela egiazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Aurrekontua elkarteko ordezkari arduradunak sinatuta aurkeztuko beharko da.

4.- Subsanación de defectos

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en la norma de convocatoria, se requerirá al interesado para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de 10 días, indicándole, que si no lo hiciese, se le tendrá por desistida su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del Proceso Administrativo Común.

5.- Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención y el plazo en que será notificada la resolución.

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Cultura y Educación y resueltas por Resolución de Concejal Delegada de Educación y Cultura en el plazo máximo de 6 meses desde la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

6.- Gastos subvencionables

Los gastos subvencionables son aquellos que se realicen de acuerdo con la actividad subvencionada y dentro de los plazos fijados en las presentes bases, tales como: programas o acciones de promoción y difusión de actividades culturales, festivales organizados por entidades culturales, danza, teatro, folklore, tradición, artes plásticas, así como los relacionados con la protección y recuperación del patrimonio, audiovisuales, etc.

7.- Plazo y lugar para presentar las solicitudes

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención para programas de actividades previstas estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 8 de noviembre del 2024.

Deberán emplearse los impresos normalizados bien cumplimentados.

En el impreso de solicitud, las asociaciones solicitantes deberán autorizar al Ayuntamiento de Andoain para recabar los datos necesarios que acrediten estar al día en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales. En caso de no autorizar la consulta, deberán presentar un certificado que acredite que están al día en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales. El presupuesto habrá de presentarse firmado por la persona responsable de la asociación solicitante.



Andoain Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

DIRULAGUNTZA LERROA:
AURREIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK - 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK

LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS - 2024:
BASE ESPECÍFICA.

4

Eskaerak Udaletxeko ATARIA-n aurkeztuko dira edo Udalaren www.andoain.eus web-orriko Zerbitzu Telematikoak erabiliz.

Las solicitudes se podrán presentar en el servicio ATARIA del Ayuntamiento de Andoain o a través de los servicios telemáticos de la página web municipal www.andoain.eus

8.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatu da. Puntuaren balioa 2024rako aurreikusitako urteko kulturajardueretarako dirulaguntzen lerroan ezarritakoa izango da. Puntu bakoitzaren balore ekonomikori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa.

Eskabideak baloratzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

8.- Criterios de valoración de las solicitudes

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas. El valor del punto será el establecido en la línea de subvenciones de actividades culturales anuales previstas para el 2024. Este valor económico de cada punto se multiplicará por los puntos conseguidos por cada solicitud, lo que determinará la cuantía a percibir.

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:

Proposatutako egitarauaren ezaugarriak Características del programa propuesto	gehienez 60 puntu máximo	P	
Jardueraren interesa (10 p) Interés de la actividad	Proiektzioa proyección	Elkartearen barruan – Para la Asociación	1
		Herri mailakoa – A nivel local	2
		Eskualdekoa – A nivel comarcal	2
	Antolakuntza organización	Beste elkarte batekin – con otra asociación	2
		Bi edo elkarte gehiagorekin – con dos o más asociaciones	3
Aurrekontua (10 p) Presupuesto	2.000€ arte – hasta 2.000€		2
	1.000€ gehiago, bakoitzeko – Por cada 1.000€ más		1
Euskal kultura sustatzea (6p) Promoción de la cultura vasca	Euskal kulturarekin zerikusia EZ daukan jarduera Actividad que no tenga nada que ver con la cultura vasca		0
	Euskal kulturarekin zerikusia daukan jarduera Actividad relacionada con la cultura vasca		6
Proposatutako jarduerak euskaraz garatzea (6p) Desarrollar las actividades propuestas en euskera	Idatzizkoa Escrito	Publizitatea euskaraz edo elebiduna – Publicidad en euskara o bilingüe	1
		Aurkezpena euskaraz – presentación en euskara	1,5
	Ahozkoa oral	Megafonia euskaraz – megafonía en euskara	1
		Jarduera euskaraz – la actividad en euskara	2,5
Andoaingo ezaugarriak (6p) Promoción de singularidades de Andoain	Andoaingo ondarea edo historia lantzea – trabajar la historia o el patrimonio de Andoain		3
	Andoaingo tradizioarekin lotura izatea – que tenga relación con la tradición de Andoain		3



Andoain Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

DIRULAGUNTZA LERROA:
AURREIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK - 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK

LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS - 2024:
BASE ESPECÍFICA.

5

Egitarian berrikuntzak eta jarduerak berriak txertatzea (6p) Introducción de novedades y nuevas actividades en el programa	Berrikuntza bat – Una innovación	2,5
	Bi berrikuntza edo gehiago – Dos o más innovaciones	3,5
Proposatutako jardueretan kanpoko jatorria dutenen parte hartzea bultzatzeko neurriak hartzea (5 p) Puesta en marcha de cauces de participación de personas de distintos orígenes o actividades que se trabaje la multiculturalidad	Kanpoko jatorria dutenen parte hartze bultzatzea Promover la participación de las personas de origen extranjero	5
Berdintasunezko balioak sustatzea; sexu rola eta estereotipoak hausten laguntzen duten ekimenak; emakumeen ahaluntzea eta autonomia sustatzea duten ekimenak. (6p) Promover iniciativas que contribuyan a romper roles y estereotipos sexuales; iniciativas que fomenten el empoderamiento y la autonomía de las mujeres.	Sexu rola eta estereotipoak hausten laguntzen duten ekimenak. Iniciativas que ayuden a romper roles sexuales y estereotipos de sexo.	3
	Emakume eta gizonak modu parekidean parte hartzen duten ekimenak: bai antolakuntzan eta baita ere ekintza gauzatu eta gozatzeko. Participan mujeres y hombres de forma paritaria, tanto en la organización como en la realización y disfrute de la actividad.	3
Ingurumena errespetatzea sustatzen duten ekimenak (5 p) Iniciativas que promuevan el respeto al medio ambiente.	Ekintza burutzeko ingurumenaren zaintza kontuan hartzeagatik Por tener en cuenta el cuidado del medio ambiente para llevar a cabo la acción	2
	Ingurumena errespetatzeko baliabideak erabiltzea Utilización de medios de respeto al medio ambiente	3

Taldearen ibilbidea eta ezaugarriak Trayectoria y carácter de la entidad	gehienez 25 puntu máximo	P
Taldea eskatzailearen jarraitasuna eta egonkortasuna (5 p) Continuidad y estabilidad del grupo solicitante	3 urte - años	1
	4-7 urte - años	2
	8 – 12 urte - años	3
	13 – 16 urte - años	4
	17 urte edo gehiago – años o más	5
Taldea eskatzailearen giza taldeen dedikazioa: kontratu-peko langilegoa (4p) Dedicación de los equipos humanos del grupo solicitante: personal contratado	Kontratupeko langileak: langile bakoitzeko puntu 1 Personal laboral: 1 punto por trabajador	
Taldea eskatzaileak Udalarekin duen partaidetza (4p) Participación de la Asociación con el Ayuntamiento	Udalak sustatutako ekimenetan ez du parte hartzen – no participa en las iniciativas promovidas por el Ayuntamiento.	0
	Udalak antolatutako ekimenetan parte hartzen du – Participa en iniciativas organizadas por el Ayuntamiento	4
Lokalaren iraunarazte lanak eta beste gastu orokorrak (4p) Mantenimiento del local y otros gastos generales	0-500€	0
	501-1.000€	2
	1001 – 2.000€	4
Jabetza pribatukoa eta bestelakoa Propiedad privada y otras		4



Andoingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

DIRULAGUNTZA LERROA:
AURREIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK - 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK

LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS - 2024:
BASE ESPECÍFICA.

6

Lokaleko beste gastuak (4p) - Otros gastos del local luz	Argia -	300€ arte – hasta 300€	1
		301€tik gora – más de 301€	2
Asegurua - seguro		300€ arte – hasta 300€	1
		301€tik gora – más de 301€	2
Emakumearen partaidetza bereziki sustatzea (zuzendaritzaren generoaren araberako osaketa eta ardurak) (4 p) Fomentar especialmente la participación de las mujeres (composición y responsabilidades de la dirección en función del sexo)	Gizon>emakume		0
	Orekatuta (±%50)		2
	Emakume>Gizon		4

Taldearen finantza baliabideak Recursos financieros del grupo	gehienez 15 puntu máximo	P
Autofinantzaketarako neurriak eta ahaleginak egitea bazkideek eta bazkideen artean (7 p) Medidas de auto financiación y esfuerzos de quienes componen la asociación.	Bazkide edo taldeko partaideek ordainduriko urteko kopurua finkoagatik Cantidad fija anual abonada por las personas socias del grupo	3
	Taldeko partaideek dirua lortzeko egindako ekintzengatik Por acciones de obtención de fondos realizadas por los integrantes del grupo	4
Erakunde publikoetara eskatutako dirulaguntzengatik (4 p) Por subvenciones solicitadas a otras instituciones públicas	Izaera publikoko erakunde bakoitzari eskatutako dirulaguntza bakoitzagatik (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, besteak) Por cada subvención solicitada a entidades públicas (Gobierno Vasco, Diputación Foral, otros)	2
Ekarpen pribatuak bilatzeko egindako ahaleginak (4 p) Por el esfuerzo realizado para conseguir otras aportaciones privadas	Beste erakunde edo enpresa bakoitzari eskaturiko diru ekarpen bakoitzagatik Por cada aportación económica solicitada a otra entidad o empresa. Por cada uno.	2



Andoain Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

**DIRULAGUNTZA LERROA:
AURRIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS 2024: BASE
ESPECÍFICA.**

7

9.-Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza diru kopurua era honetan ordainduko da:

%60 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

%40 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Diru laguntza hau bateragarria da beste entitate publiko edo pribatu batzuek helburu bererako ematen duten beste edozein diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderek; betiere, bateragarritasun horrek gehiegizko finantzaketa ematen ez badu. Alde horretatik, gehiegizko finantzaketarik badago, emandako diru laguntzaren zenbatekoa jaitsiko da, gehienez ere dagokion mugaraino.

Bestelako dirulaguntzarik jasoz gero, helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratu dituela jakinarazi beharko dio onuradunak organo emailari.

10.- Prozedura

Esandako guztiak gain, eskaerak honakoa bete beharko du:

a) Behar bezala identifikatutako pertsona edo erakundeen ardurapean deitu, antolatu eta egin behar dira, argi eta garbi zehaztuta nork zer erantzukizun duen.

b) Dirulaguntzen emakidarako kontuan hartutako baldintzak aldatzeak, eta nolahi ere beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu emandako laguntzak edo dirulaguntzak, eta hala badagokio, xede bererako edozein diru-sarrera edo baliabide aldi berean lortzeak emakida ezeztatzea ekarri ahal izango du. Ildo horretan, beste laguntza, dirulaguntza edo baliabide aldi berean gertatzeko aukera, edo hala badagokio, hori jasotzeko bateraezintasuna aipatu egin beharko da. Bateragarritasuna onartzekotan, gain-finantziarioa sahisteko mugak edo irizpideak ezarri beharko dira ezinbestean.

9.- Abono de la subvención

El importe de subvención será abonado de la siguiente forma:

60% tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

40 % tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

La presente subvención es compatible con aquellas otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra entidad pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta, se reducirá el importe de la subvención concedida hasta el límite máximo que corresponda.

En el supuesto de recibir otras subvenciones, el beneficiario deberá comunicar al órgano concedente la obtención de las citadas subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad

10- Procedimiento

Además de todo lo señalado la solicitud deberá cumplir los siguientes extremos:

a) Deberán convocarse, organizarse y ejecutarse bajo la responsabilidad de personas o entidades debidamente identificadas, expresando con claridad en quién recaen las distintas responsabilidades.

b) La modificación de las condiciones que hayan sido consideradas para la concesión de la subvenciones y, en todo caso, las ayudas o subvenciones concedidas por otras administraciones o entidades públicas o privadas y, si correspondiere, la obtención al mismo tiempo y con el mismo objeto de cualquier ingreso económico o recurso podrá generar la anulación de la concesión recibida. En dicho sentido, deberá hacerse mención expresa de la posibilidad de obtención de otras subvenciones o recursos en el mismo período de la solicitud, y, si fuera el caso, deberá hacerse mención de la incompatibilidad para percibir la misma. Si se aceptara la compatibilidad de dichas ayudas, necesariamente se deberán establecer los límites y criterios para evitar la sobrefinanciación.



Andoain Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

**DIRULAGUNTZA LERROA:
AURRIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS 2024: BASE
ESPECÍFICA.**

8

11.- Dirulaguntzaren justifikazioa

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak zurituko dira jardueraren memoria, gastu eta sarreraren likidazioa, eta horren zurigarririk aurkeztuz.

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa, diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hau aurkezteko epe muga izango da: 2025eko urtarrilak 30. Epea kanpo aurkeztutako likidazioak ez dira onartuko.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, andoaingo Udalak dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren oinarrian adierazitakoaz gain:

- a) Dirulaguntza eskabide normalizatua, udalaren eredia.
- b) Diruz lagundu den programaren edo jardueren balorazioa eta memoria xehetua (I. eta II. eranskinak).
- c) Sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa. (III. eranskina)
- d) Gastuen egiaztagirien zerrenda sailkatua eta horien kopia (IV. eranskina). Egindako gastuen egiaztagiriak zenbakituta aurkeztuko dira, zerrendan agertzen den hurrenkerari jarraituz, eta hartzekoduna eta dokumentu-mota, zenbatekoa eta jaulkipen-data identifikatuta. Hau da, egindako gastua justifikatzen duen tiket BAI eta faktura BAI guztiak aurkeztu beharko dira. (300 eurotik gora, beti faktura aurkeztuko da). Ez da gastu-oharrik onartuko.
- e) V eta VI. eranskinak sinatuak.
- f) Egindako dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoak.

Likidazioetan onartuko diren gastu-zurigarririk, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Fakturak. Informazio fiskala osoa jaso beharko dute; hau da: ematen eta jasotzen duenaren identifikazioa (izen deiturak, NA edo IZK, helbidea, telefonoa); faktura zenbakia, data, eta BEZ.
- Faktura sinplifikatuak edo tickeak. Bakarrik onartuko dira 300 eurotik beherakoak. Beti ere datu fiskalak barne

11.- Justificación de la subvención

Las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán mediante la presentación de la memoria de actividades, liquidación de gastos e ingresos y sus correspondientes justificantes.

Así pues, el segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite de 30 de enero de 2025. No se aceptarán liquidaciones presentadas fuera de plazo.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Andoain:

- a) Solicitud normalizada de subvención, modelo municipal.
- b) Valoración y memoria detallada del programa o actividades subvencionadas (anexos I y II).
- c) Balance económico de ingresos y gastos. (Anexo III).
- d) Relación clasificada de los documentos justificativos de los gastos y copia de las mismas (Anexo IV). Los documentos justificativos de los gastos realizados se presentarán numerados siguiendo el orden que figura en la relación, con identificación del acreedor y del tipo de documento, su importe y fecha de emisión. Es decir, habrá de presentar todos los tickets BAI y facturas BAI que justifiquen el gasto realizado (a partir de los 300€ siempre se presentará factura). No se admitirán notas de gasto.
- e) Las firmadas en los anexos V y VI.
- f) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual elaborada.

Los justificantes de gasto que se admitirán en las liquidaciones, deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Facturas. Deben contener información fiscal completa; es decir: identificación del/a emisor/a y receptor/a (CIF, DNI nombre y apellidos, dirección, teléfono...); número de factura, fecha e IVA.
- Factura simplificada o ticket. Sólo se admitirán los de menos de 300 euros. Siempre con los datos fiscales incluidos, y bien



Andoain Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

**DIRULAGUNTZA LERROA:
AURRIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS 2024: BASE
ESPECÍFICA.**

9

dituela, ematen duena ondo identifikatuta egon behar du, eta erosketaren kontzeptua identifikatuta eta irakurtzeko moduan azalduko da.

- Langile-gastuak: langile-gastuak justifikatzeko, dagozkion nominak aurkeztu beharko dira.

- Zehaztugabeko gastuak: Gehienez aurrekontu osoaren %10ekoa izango da, eta hemen onartuko dira dieta, kilometrajea, telefonoa, eta faktura, faktura sinplifikatua eta tickearen bidez zuritu ezin direnak. Jaso-agiri horiek ondo identifikatuta egongo dira, eta arduradunak egindako deklarazioa izango da, sinatuta egongo da, eta 300 eurotik beherakoak izan beharko dute. Agiri hauek dagokien banku-transferentziaren agiriarekin batera joan beharko dira.

- 300€ edo gutxiagoko sarien kasuan, banku transferentziaren ordainagiria eta jaso-agiria aurkeztu beharko dira, eta 300€ baino gehiagoko sarien kasuan, gainera, dagokion atxikipearen aitopenen Foru Ogasuneko egiaztatzea aurkeztu beharko da (110 modelua)

- Alokairu gastuak: gehienez 3.000 euro. Alokairuek sortutako gastuak zuzitzeko kontratua, jaso-agiriak eta transferentzia-agiria aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntzen emakidarako kontuan hartutako baldintzak aldatzeak, eta nolahi ere beste administrazio edo erakunde publikok edo pribatuk emandako laguntzak edo dirulaguntzak, eta hala badagokio, xede bererako edozein dirusarrera edo baliabide aldi berean lortzeak emakida ezeztatzea ekarri ahal izango du. Ildo horretan, beste laguntza, dirulaguntza edo balibide aldi berean gertatzeko aukera, edo hala badagokio, hori jasotzeko bateraezintasuna aipatu egin beharko da. Bateragarritasuna onartzekotan, gainfinantzazioa sahisteko mugak edo irizpideak ezarri beharko dira ezinbestean.

Balantzea elkarteko ordezkariak sinatuta aurkeztuko beharko da.

12.- Publizitatea

Azaroaren 24eko 10/1982 oinarrizko (Euskeraren) Legearen 26. eta 27. artikuluetan xedatuaren arabera, euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabili dadin eta, oro har, gizarte bitzian euskararen presentzia gehi dadin neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei. Era berean, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera

identificado el emisor, así como especificado el concepto de la compra figurará debidamente identificado de manera legible.

- Gastos de personal: para justificar los gastos de personal, habrán de presentarse las correspondientes nóminas.

- Gastos indefinidos. Como máximo representarán el 10% del presupuesto total, y aquí se aceptarán dietas, kilometrajes, teléfono, y aquello que no pueda justificarse mediante factura o factura simplificada. Estos recibís que estarán bien identificados, y será una declaración hecha por la persona responsable, estará firmada, y su importe será inferior a 300€. Con esta documentación se deberá presentar el justificante de transferencia que acredite dicho pago.

- En el caso de los premios de 300€ o menos, habrá que presentar el recibí y el justificante de la transferencia bancaria y, para premios mayores de 300€, habrá que acompañarlo además, con el justificante de la declaración de la correspondiente retención en la Hacienda Foral (Modelo 110)

- Gastos de alquiler: máximo 3.000 euro. Para justificar los gastos de alquiler, habrá que presentar el contrato, recibí y el justificante de la transferencia bancaria.

La modificación de las condiciones que hayan sido consideradas para la concesión de la subvenciones y, en todo caso, las ayudas o subvenciones concedidas por otras administraciones o entidades públicas o privadas y, si correspondiere, la obtención al mismo tiempo y con el mismo objeto de cualquier ingreso económico o recurso podrá generar la anulación de la concesión recibida. En dicho sentido, deberá hacerse mención expresa de la posibilidad de obtención de otras subvenciones o recursos en el mismo período de la solicitud, y, si fuera el caso, deberá hacerse mención de la incompatibilidad para percibir la misma. Si se aceptara la compatibilidad de dichas ayudas, necesariamente se deberán establecer los límites y criterios para evitar la sobre financiación.

El balance habrá de presentarse firmado por quien ostente la responsabilidad de la asociación.

12.- Publicidad

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 26 y 27 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de Normalización del Uso del Euskera, corresponde a los poderes públicos adoptar las medidas tendentes a incrementar el uso del euskera en todos los ámbitos sociales y en la publicidad y, en general, para aumentar la presencia del euskera en la vida social. Asimismo,



Andoain Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

**DIRULAGUNTZA LERROA:
AURRIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS 2024: BASE
ESPECÍFICA.**

10

normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 10., 11. eta 38. artikuluetan, Udalek euskararen erabilera gizarte bizitzan sustatzeko eta dirulaguntza publikoak ematerakoan hizkuntza baldintzak aintzakotzat hartzeko irizpidea ezarrita dago. Hortaz, Andoaingo Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzaren 31. artikuluan finkatutakoaren arabera eta Andoaingo ESEP-eko 8.2.2. ekintza kontuan hartuz, honakoa da aplikatuko den irizpidea: Udalak diruz laguntzen dituen ekintzetan argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dira, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko delarik.

Era berean, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egingo da, bai proiektua gauzatzeko jarduera propioan, bai kontratua gauzatzen den bitartean sortzen diren komunikazio- eta hedapen-agiri edo -euskarri guztietan.

Era berean, genero-rolaren eta -esteriotipoen haustura erraztuko duen komunikazioa sustatuko da, euskaraz zein gaztelaniaz.

Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak bait dira.

Dirulaguntzak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da guzti hori, dirulaguntza hartzaileek, dirulaguntza jasoko badute, derrigorrez bete beharko dutelarik.

Artikulu honetako lau puntuetan xedatua betetzeko, dohain eskainiko ditu Udalak bere Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta aholkularitza, eta horrela jakin eraziko zaie interesatuei.

13.- Mezuak

Jardueri buruzko egitarau nahiz ekintza gauzatzen den bitartean sortzen diren komunikazio- eta hedapen-agiri edo -euskarri guztietan, baita sareetan ere, ez da onartuko

en los artículos 10, 11 y 38 del Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso de las lenguas oficiales en las entidades locales de Euskadi, se establece el criterio de que los Ayuntamientos promuevan el uso del euskera en la vida social y tengan en cuenta las condiciones lingüísticas a la hora de conceder subvenciones públicas. Por tanto, de acuerdo con lo establecido en el artículo 31 de la Ordenanza Municipal para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y en el Municipio de Andoain y teniendo en cuenta la actuación 8.2.2 del ESEP de Andoain, el criterio a aplicar es el siguiente: los escritos, anuncios, notas y demás que se publiquen en las actividades e iniciativas subvencionadas por el Ayuntamiento deberán ser redactados y difundidos en euskera o en euskera y castellano, así como la propaganda, tanto oral como escrita, en euskera o en euskera y castellano.

Asimismo, se hará un uso no sexista del lenguaje, tanto en la actividad propia para llevar a cabo el proyecto como en toda la documentación o soportes de comunicación y difusión que se produzca durante el desarrollo de la actividad.

Asimismo, se promoverá una comunicación que favorezca la ruptura del rol y los estereotipos de género, tanto en euskera como en castellano.

Asimismo, los mensajes que se emitan por altavoz en las celebraciones concretas deberán emitirse también en euskera o euskera y castellano.

En las comunicaciones que se realicen en euskera y castellano, y sobre todo en las realizadas oralmente, se le dará prioridad al euskera, ya que quienes pudieran entender la comunicación en euskera son personas bilingües.

Todo ello conformará uno de los requisitos para poder recibir subvenciones, debiendo, la persona destinataria, cumplir obligatoriamente dicha condición para poder percibir la subvención.

A fin de dar cumplimiento a lo establecido en este artículo, el Ayuntamiento ofrecerá gratuitamente los servicios de traducción y asesoramiento de su servicio de euskera, y así lo hará saber a los interesados.

13.- Mensajes

Tanto en los programas como en toda la documentación o soportes de comunicación, redes y difusión que se produzcan referentes a la actividad, no se admitirá ningún mensaje de



Andoain Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

**DIRULAGUNTZA LERROA:
AURRIKUSI GABEKO URTEKO
KULTUR JARDUERAK 2024:
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**LÍNEA DE SUBVENCIÓN:
ACTIVIDADES CULTURALES
ANUALES NO PREVISTAS 2024: BASE
ESPECÍFICA.**

11

edozein motako indarkeriaren aldeko mezurik, ez alderdi politikoena, ez sexu diskriminazioa bultzatzen duen adierazpenik ez eta arrazakeria goratzen duen aipamenik ere.

Baina, udalak bultzaturiko edo hartutako genero indarkeriaren aurkako neurri bereziak edo martxan jarritako kanpainak zabaltzen parte hartze aktiboa izango da.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

14.- Egitasmoetan bete beharreko legedia:

- a) 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerak Arautzen dituen.
- b) Emakumeen eta Gizasemeen arteko berdintasuna bermatzeko den 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, xedatzen dena bete beharko da.
- c) 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko.
- d) Andoaingo Udalean eta Udalerrian Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko 1/88 Udal Ordenantzaren 31. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.
- e) Animaliak babesteko den urriaren 29ko, 6/1993 LEGEAn (azaroaren 15eko EHAA, 220 zk) xedatutakoa bete beharko da.
- f) 9/2022, ekainaren 30ekoa, etxeko animaliak babesteko.
- g) Personak zarata eta bibrazioen aurka babesteko Udal Ordenantza, 2011.10.27ko Udalbatarra Osoko Bilkuran onartutakoa, eta 2012.01.19ko 13. zenbakidun GAOn argitaratua.

15.-Klausula gehigarria.

Oinarri espezifikoko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria, bereziki honoko hau:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzak arautzeko orokorra.
- Uztailaren 21ko 887/2006 Erret Dekretua, dirulaguntzen araudia.
- Dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza.

ningún tipo de violencia, ni política, ni expresiones que potencien la discriminación sexual, ni racial.

Pero, en el caso de que el Ayuntamiento impulse o adopte medidas especiales o ponga en marcha campañas contra la violencia de género, se participará activamente en la difusión de las mismas.

Toda la documentación, publicidad, imagen o material hará un uso no sexista del lenguaje, evitando cualquier imagen o estereotipo sexista que discrimine a las mujeres y fomentando valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad e identidad de género.

14.- Legislación que habrá de observar en los proyectos :

- a) Ley 10/2015, de 23 de diciembre, reguladora de los Espectáculos Públicos y Actividades Lúdicas.
- b) Ley 4/2005, de 18 de febrero, que regula y busca garantizar la igualdad de género.
- c) Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.
- d) Se dará cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 31 de la Ordenanza Municipal 1/88, que señala las normas para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y en el municipio de Andoain.
- e) Ley 6/1993, de 29 de octubre (BOPV nº 220, de 15 de noviembre) sobre protección de animales.
- f) Ley 9/2022, de 30 de junio, de protección de los animales domésticos.
- g) Ordenanza municipal para la protección de las personas contra las emisiones de ruido y vibraciones aprobada por el Pleno Municipal con fecha 27.10.2011 y publicada en BOG nº 13 de fecha 19.01.2012.

15.- Cláusula complementaria.

Para todo lo que no se recoja en estas bases específicas se aplicará lo establecido en las bases generales, en especial:

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de Subvenciones.
- Ordenanza municipal reguladora para la concesión de subvenciones